

A MODALITATERAKO LAN-PLANA : IRAKURKETA PLANA 2019-2020

Elizatxo Ikastola

Kodea:012654

SARRERA: Elizatxo Ikastola, Hernaniko herrian dagoen ikastetxea da. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza biltzen duten bi lerroko ikastetxea da, D eredukoa. Ikasle kopuruari dagokionez, 435 ikaslez osaturik dago, beraien maila sozio ekonomikoa ertain baxua da eta familia etorkinak dituen ikastetxea izanik eskola bateratzailea izaten saiatzen gara. Aniztasunari erantzuteko aholkularitza eta Heziketa Premia Berezian berariazko trataera lantzen dugu.

1. Diagnostikoa:

1.1. Ikastetxearen ibilbidea hizkuntzekin zerikusia duten esperientzietan:

Elizatxo ikastetxeak beti egin izan ditu jarduera anitzak Hizkuntzaren garapena hobetze aldera.

Hona hemen garrantzitsuenak:

- Hizkuntza arloen Proiektu Curricularra
- IRALE hainbat ikastaroak urteetan zehar
- Bertsolaritza
- Dobera Euskara eragileak antolaturiko ekimenak
- Tinko zinema euskaraz
- Mintzola (HNP proiektua)
- Ulibarri programa (HNP proiektua)
- Irakurketa Plana (1. urtea)

1.2. Esperientzi harietan parte hartu duten ikasle taldeak.

Ikastetxean garatzen ditugun proiektuetan irakasle guztiak hartzen dute parte, hobekuntza plana ikastetxe guztiari dagokiolako, beraz proiektu honetan ere , Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako irakasle guztiak hartzen dute parte.

1.3. Emaitzak euskara , gaztelanian eta atzerriko hizkuntzan:

Ebaluazio diagnostikoaren arabera, 2016-2017-ko ikasturtean hauek dira Hizkuntzan ikastetxeko emaitzak:

- Euskara arloan, emaitza hobekak lortu dira entzumen dimentsioan ulermenean baino. Ikastetxeko emaitzen bilakaeraren arabera konpetentziaren gaitasun joera beherantz izan da.

- Gaztelania arloan, dimentsioak konparatuz entzumenekoak eta irakurmenekoak berdintsuak izan dira. Ikastetxeko emaitzen bilakaeraren arabera kompetentziaren gaitasun joera ez du alde nabarmenik erakusten.
- Ingelesa arloan, entzumeneko emaitzak irakurmenekoak baino hobeak izan dira. Ez du alde nabarmenik aurreko ikasturtekoekin, baina joera beherantz izan da.

2. Helburuak: Jadanik hasita dugun Irakurketa Planarekin jarraitzea, iaz egin genuen diagnostikotik abiatuta eta aurten egin dugunetik ere.

- Ikasteko irakurtzea eta Irakurtzen ikastea, curriculumeko arloak hobetzeko.
- Haurren irakurzaletasuna garatzea.
- Familien parte hartzea sustatzea.
- Eskola liburutegia erabiltzea.
- Irakurketan irakasleok formatzea.

3. Plangintza:

Proiektu hau bi ikasturtetan garatzen ari gara. Datorren ikasturtea bigarrena izango litzateke eta hemen azaltzen dugu aurreikusten dugun kronograma .

a) Taula beteta HH eta LHko ikasleak

b) 2018-2019 ikasturtean:

Egin diren ekintzak Irakurketa Planaren barnean:

- Formakuntza, Galtzagorriren eskutik.
- Diagnostikoa.
- Egiten diren jardueren hausnarketa.
- Jarduera berriak erabaki eta gauzatu.
- Zenbait jarduera berrien ezarpena.
- Liburutegiaren berrantolaketa.
- Dekalogoia banatu zaie gurasoei.
- Berritzeguneko aholkularien formazioa

c) 2019-2020 ikasturtean

- Irakasleriaren formazioaren jarraipena Berritzeguneko aholkularien eskutik.(10 ordu):Berritzegunetik 2 orduko 3 saioa eta irakasleak hamabostean behin talde lana , 13:40-14:00
- Liburutegian dauden liburuak katalogatu eta martxan jarri. Materiala, hau da, liburuak berritu eta liburutegia hornitu.
- Irakurketa Plana garatzen, praktikan jartzen eta ebaluatzen jarraitu.
- Jardueren ezarpen epea amaituta, azken ebaluazioa egin betetze-maila aztertzeko.

2020-2021 ikasturtean

- Liburutegian dauden liburuak katalogatzen jarraitu. Materiala, hau da, liburuak berriak eta liburutegia hornitu.
- Irakurketa Plana garatzen, praktikan jartzen eta ebaluatzen jarraitu.
- Hiru hizkuntzen trataera aztertu. HTI (Hizkuntza Trataera Integratua). Euskera, gaztelera eta ingeleseko arloetan, testu motak, jarduerak motak.
- Jardueren ebaluazioa eta moldaketa (egokitzapena) egin.
- Etengabeko ebaluazioa egin.

d) Astero zenbat koordinazio saio: 2 koordinazio saio proiektuaren garapena bermatzeko

e) Ebaluatzeko irizpideak:

EBALUATZEKO IRIZPIDEAK:

1. Ikasteko irakurri eta irakurtzen ikasi saioak egin ditugu.
2. Irakurzaletasuna garatzea liburutegira maila guztiko ikasleak joan dira;
3. Familiak irakurketa prozesuan kolaboratzea Familiak ikasleekin irakurri dute, liburutegira joan dira.
4. Eskolako liburutegiaren erabilpena bermatzea. Maila guztietako ikasleak gutxienez saioetan joan dira.
5. Irakasleentzat prestaturiko formazio saioak egitea. Formazio saioetan irakasle guztiak hartu dute parte.

EMAITZAK ETA INPAKTUA NEURTZEKO ADIERAZLEAK:

1. Curriculum arloetan ikasteko irakurri eta irakurtzen ikasi konpetentzia hobetu da.
2. aurren irakurzaletasuna garatu da.
3. Familiak parte hartu dute.
4. Eskolako liburutegia erabili da.
5. Irakasleen formazio saioak burutu dira.

f) Prestakuntza-ekintzak:

EKINTZA: IRAKURTZEN IKASI ETA IKASTEKO IRAKURRI FORMAZIOA

1-Prestakuntza-jardueraren justifikazioa (proiektuarekiko erlazioa)

Jadanik Prestakuntza Ekimen Globalaren barruan hasita dugun Irakurketa Plana, aurtan 2017-2018 eta 2018-2019 ikasturteetan egin genituen diagnostikotik abiatuta, ikastetxeko Irakurketa Plana bere osotasunean burutu nahiko genuke. Horretarako, irakasleria prestakuntza ekintzen bitartez formatzen ari da. Aldi berean, ikasleen irakurzaletasuna, irakurtzen ikasi, ikasten irakurri eta hizkuntzaren konpetentzia hobetzea ere nahiko genuke, kanpo ebaluazioko emaitzak kontutan hartzen ditugulako. Horretarako hurrengo ikasturtean, irakurtzen ikasi eta ikasteko irakurri eremuak sakonduko genuke Berritzeguneko aholkularien eskutik eta hortaz ikastetxeko espazioen erabilpena hobetu eta jarduera berriak hautatu eta sistematizatuko ditugu.

2-Prestakuntza-jardueraren helburuak.

- Irakasleak formatzea eta motibatzea.
- Irakurtzen ikasi, ikasteko irakurri eta irakurzaletasuna ezberdintzea eta hauen inguruan ezagupenak handiagotzea.
- Hiru eremuen inguruan dauden baliabideak eta beraien erabilpena ezagutzea.
- Materialen, jardueren eta metodologiaren inguruko ezagupenak areagotzea.

3-Edukien definizioa

Berritzeguneko aholkularien materiala: link interesgarriak, bibliografia, jarduerak, metodologiak ...

Hiru eremuak: Irakurtzen ikasi, ikasteko irakurri eta irakurzaletasuna

4-Jardueraren egitura: non egingo den, egutegia, orduak guztira, zati bereziak eta haien denbora-antolaketa.

Formakuntza:

Ikastetxean bertan, 10 ordu:

Irailean: 3 orduko saio bat eta 2 orduko bi saio.

Kurtsoan zehar: ordu 1 eta erdiko bi saio.

Jarduera:

Maleta bidaiaria: HH-ko 3,4 eta 5 urteko geletako ikasleei eta LH-ko 1. Zikloko ikasleei zuzendurik egongo da.

Gela bakoitzeko maleta bat prestatzen da hizkuntza ezberdinetako liburuekin (5 euskaraz, 2 gaztelaniaz eta 1 ingelesez, familientzako irakurketa sustatzeko informazioa, familientzako maletaren inguruko

informazioa eta familiek iradokizunak idazteko koadernoak. Maleta hau ikaslez-ikasle pasako da eta aste batez izango dute etxean.

5-Jardueraren ebaluazioa, jarritako helburuen arabera: ebaluazio-irizpideak eta -adierazleak.

- Irakasleak formatu eta motibatu dira.
- Irakurtzen ikasi, ikasteko irakurri eta irakurzaletasuna ezberdintzeko eta hauen inguruan ezagupenak handiagotzeko ezagutzak eskaini dira.
- Irakasleek hiru eremuen inguruan dauden baliabideak eta beraien erabilpena ezagutu dituzte
- Materialen, jardueren eta metodologiaren inguruko ezagupenak jaso dira.

6-Zer erakunde aurreikusi den prestakuntza-jarduera emateko.

Berritzeguneko aholkulariak.

7-Prestakuntzaren aurrekontua, baldin eta erakunde pribatu batek ematen badu, edo proiektuari lotutako jarduerak egiteko aurrekontua, edo prestakuntzari laguntzeko materiala erosteko aurrekontua, eta justifikazioa.

- Maleta bidaiaria jarduerarako materiala. HH-ko 6 taldeentzat eta LH-ko 1. Zikloko 4 taldeentzat: 1000€
- Liburutegiaren hornikuntza:500€
- Liburutegiko espazioaren antolaketa didaktikoa: 500€

8-Eskatutakoa, guztira.

- 1500€ Liburutegiko hornikuntza (500€) eta maleta bidaiaria jarduerarako HHko ikasleentzat eta LH-ko 1. Zikloko ikasleentzat (10 talde)(maleta 1=100 € x 10 talde)(1000€)
- 500€ espazioaren antolaketa
- **Guztira: 2000€**